

Pako Sodupe

IDAZLEA

San Telmo museo berritua

Gehiena dago pentsatua bisitaria berriz itzul dadin, aldi baterako erakusketatik hasita. Hamaika ordu baino gehiagoko grabazioak, munduko leku askotako jendeari eginak: bizitzaz, zorionaz, negarraz, egindako galderen erantzunak. Merezi du erantzunak entzutea, eta gizaki horiek ikustea.

Erakusketa iraunkorretan gure etnografiak, historia, pinturaz, era askotako informazioa. Beteei ez baizik hutsune eta ikuspegi okerrei erreparatuko diet. Hutsuneekin hasita, XX. mende hasierako literaturaz ari, egoki nire ustez, “*literatura vascoespañola*” deiziopean, Unamuno, Baroja, Maeztu aipatzen dira, eta euskarazko literaturaren deiziopean: E. Arrese, M. Soroa eta T. Altzaga. Asmatu duzue zein falta den: D. Agirre. Haren *Kresala*, eta zer esanik ez *Garoa*, ez dira baztertzeokoak atal horretan.

Ikuspegi okerrera etorri, gure historiaren aldi eta gertakari garrantzizko batzuek ari, informazio objektiboa izan behar lukeena manipulaziora bideratzen duena giltza-hitz bat da: erradikala, nazionalismo erradikala.

Primo de Riveraren diktadurapean euskal nazionalismoa kulturaren babestu omen zen, espresuki adierazten zaigunez. Jeneralak nazionalismo erradikala debekatu omen zuen,



DANI BLANCO

eta moderatua toleratu. Izenondo bereizketa giltzarri horren bitartez, irakurle ez oso ohartuari hau esaten zaio: Batasuna debekatu zuen, eta EAJ toleratu. Bide batez jeneralaren diktadura zorrotza diktablanda toleragarria izan zela iradokitzen du testuak, hortxe nonbait. Oroit euskal nazionalismok ez zuela orduan borroka armaturik praktikatzen, errepresioa pairatzen baizik.

ETAren sorrerara etorrita, 50eko hamarkadan erbesteko nazionalisten eta barnekoen artean haustura sortu zela irakurtzen dugu. Egia. Eta 60ko hamarkadan erradikalizazioa etorri zen –giltza-hitza– eta 1968an, ETAk lehen atentatuak egin zituen. Hemen ere ez da errepresio izugarria aipatzen. Ez da aipatzen deskolonizazio gerrek izandako garrantzia, batez ere Aljeriakoak, Kubakoak, ezta 68ko maiatza ere, gerraondoan Europan sortu zen bestelako kulturaren garrantzia ETAren sorreran; ez da aipatzen hasierakoa ez zela atentatua izan, baizik enkontru malapartatua, eta lehen hiltzailea eraila izan zela handik berehala, era bertsuan.

Aski da *erradikal* izenondoaren erabilera manipulatu, ikuspegi ideologizatu manipulatu emateko, egungo zuzentasun politikoa gidari, ez ikuspegi historiko kontrastatu orekatua. ■

«
Aski da *erradikal* izenondoaren
erabilera manipulatu, ikuspegi
ideologizatu manipulatu
emateko, egungo zuzentasun
politikoa gidari, ez ikuspegi
historiko kontrastatu orekatua
»

TXANDAN

Amatiño



Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailburu ohiak esana: “Gero eta arrazoi gehiago ditugu herritar gisa independentista izateko”.

Segurutik arrazoi du. Are gehiago independentzia-hotsak Eskozian zein Katalunian jotzen duenetik.

Balirudike Eskozian inoiz baino eskurago dutela, hauteskundeak irabazi baitituzte. Katalunian ere nolabaiteko saiotoxoak egin dituzte eta Artur Mas lehendakariak frogatu du, aukeran, zein litzatekeen bere hautua. Gainera, ez da

Arrazoiak

gero euli-kaka, eskoziarrek badakite non hasten eta non amaitzen den Eskozia, eta katalanek argi dute zein Kataluniaz ari diren.

Euskal independentismoak, ordea, ez du euskal barrutirik gehienetan hauteskunderik irabazten, ez du markarik frogatu duen lehendakariarik eta ez daki –ez du agirian esaten behintzat– lurralde bikiaz, hirukiaz, laukiaz edo zazpikiaz ari ote den independentzia aldarrikatzeko orduan.

Erraza da nork bere arrazoiak dituen jakitea. Zailagoa da inorenak ere gogoan hartzea. ■